



EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

75 zenbakia
euro 1
laguntzarekin: 2 euro

**Ezker
Iraultzailearen
aldizkaria**

Altsasuko gazteak askatu!

Errepresioa garaitzeko
modu bakarra kaleko
borroka da



**EZ DA
NO ES**

JUSTIZIA

#ALTSASUKOAKASKE Zuekin gaude, Eutsi gaitzahi!!

Venezuela

O23ko probokazioak porrot egin du, baina eraso inperialistak aurrera jarraitzen du

Trump eta oligarkia garaitu behar da langile klasearen mobilizazioarekin

IZQUIERDA REVOLUCIONARIA
Venezuela

Otsailaren 23an Trumpen gobernu inperialistak duela hilabete bat hasitako Estatu kolpea burutu nahi izan zuen Venezuelako herriaren kontra. Helburua argia zen: Juan Guaidó ultraeskuindarra boterean jartzea, oligarkiaren gobernuaren ezarri murrizketak eta neurri neoliberalak aplikatzeko eta, horrekin batera, Venezuelako petrolio estatubatuar monopolioei eskualdatzeko.

Trumpen kolpea eta eskuin muturra “giza laguntzaz” mozorrotzen dira

Planak aurreikusten zuen kaosa sortzea Venezuelen, Brasilgo eta Kolonbiako mugetan, eta handik herrialdearen barne aldera barreiatzea balizko “giza laguntzaren” aitzakia erabiliz. Hain zen nabaria amarru politikoa, Gurutze Gorriak banatzeari uko egin baitzion.

Etxe Zuriak eta haren aliatuek bultzatu nahi zuten FANB Indar Armatu Nazional Bolivartarraren ofizialak Maduro bere postutik kentzea, eta hainbat ekimen jarri zituen martxan: giza laguntzaren probokazioa, kalean indarkeria piztea, 60 herrialdek Guaidóren aitortzea, Eu-

ropar Batasunak eta Estatu Batuek ezarritako zigor ekonomikoak... Hala ere, oraingoz, hainbeste mehatxu eta gezurren kanpainak ez du helburu bakar bat ere lortu.

Guaidó otsailaren 23an militarren instalazioen aurrean antolatutako mobilizazioek porrot egin zuten. Richar Branson espekulatzaile finantzieroak antolatutako kontzertuan 150.000 lagun biltzea aurreikusten zuten. Azkenean 20.000 lagun ozta-ozta elkartu ziren, hainbat komunikabideren arabera. Biharamunean gauza bera gertatu zen giza laguntza eraman behar zuten ustezko milaka bolondresekin: Kolonbiako eta Venezuelako bi mila ultraeskuindar ekintzaile baino ez ziren agertu.

Nahiz eta kolapso ekonomikoak jendea adoregabetu duen (azken urteotan BPG %50 erori egin da), nahiz eta herritarren zati handi bat, Hugo Chávez buru izan zen prozesu iraultzailearen egiazko protagonista izan dena, konforme ez egon Estatua eta PSUV alderdia kontrolpean duen burokraziarekin, oraindik izan badira ehunka mila langile eta gazte prest daudenak haien herrialdearen eta eskubideen alde borrokatzeko eta eraso inperialistari aurre egiteko.

Egoera oso irekia dago. O23ko porrotaren ondoren, Trumpen Esta-

tu Idazkari Mike Pompeok eta Guaidó inbasio inperialistaren mehatxua erabili dute. Baina horrelako aukera batek, Venezuelako herriaren sekulako erresistentzia pizteaz gain, Amerikan, Estatu Batuetan eta Europan mobilizazio antinperialistak eragingo lituzke. Gauzak horrela, ematen du Trumpek eta haren aliatuek, gogoz kontra, jarraituko dutela Venezuela ekonomikoki itotzen eta politikoki ezegonkortzen, FANBaren ofizial batzuk bereganatuko dituztelakoan.

Botere politikoa eta ekonomikoa langileen eta herriaren eskuetan jarri behar da

Gertatutakoak erakusten du inperialismoak duen zailtasuna garaipe azkar bat lortu eta Maduro boteretik kentzeko, hasieran nahi bezala. Horrek ikusarazten du zer indarra egon daitekeen, Trump garaitzeko ez eze, langileek eta zapal dutako herriak inizatiba hartu eta Venezuelako eraldaketa sozialista bururaino eramateko.

Une honetan oztopoak baldin badaude herriaren mobilizazio masiborako kolpe inperialistaren aurka, Chávezen garaietan gertatu bezalaxe, horiek dira azken urteotan Madurok aplikatutako politika ka-



pitalistak. Argi izan dezagun: Madurok murrizketak aplikatu eta prozesu iraultzailean eskuratutako lorpen sozialak eraitsi ditu: milaka langile kaleratu dituzte enpresa publikoetatik, multinazionalen herrialdeko baliabide mineralak eta ondasunak eman izan dizkie, langile mugimenduaren, ezkerraren eta chavismoaren sektore kritikoak erreprimitu ditu eta, aldi berean, burgesiaren sektore batzuekin akordioak bilatu eta Errusia, Txina eta Turkiarekin aliantzak egin nahi izan ditu.

Horrek guztiak zer ikusi gutxi dauka sozialismoarekin, eta eskuinaren norabidea hartu izana ekarri du.

Une berezi eta erabakigarri honetan, marxista iraultzaileok jakin badakigu barrikadaren zein aldetan egon behar dugun. Guaidó, oligarkia eta inperialismoa garaitzeko borrokatzen dugu, herriak armak har ditzan iraultza sozialista eta langileen demokraziaren alde. Hala, azken urteotako esperientziak erakutsi digu erabateko konfiantzarik ez izaten Madurorengan, buro-

kraziarengan eta armadako ofizialengan. Haien politikek eta ustelkeriek bidea zabaldu diete eskuinari eta kolpeari. Egun erreakzionarioen garaipena saihesteko dagoen modu bakarra ezker borrokalariaren fronte bakarra eratzea da: langile klasea, nekazariak eta zapalduak masiboki mobilizatzeko eta programa sozialista aurrera eramateko monopolio pribatu handiak desjabetzeko. Horrela bakarrik amaituko dira hiperinflazioa, ustelkeria eta burokraziaren pribilegioak.

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 708 281
Twitter: @EHSozialista - @EzkIraultzailea • Facebook: Ezker Iraultzailea - Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

Masen mobilizazioak U1en aurkako epaiketen hasieran

Langile eta gazteen Kataluniako errepublikaren alde!

ESQUERRA REVOLUCIONÀRIA
Catalunya

Urriaren 1aren aurkako epaiketak are ageriago utzi du “independentzia judizialaren” fartsa eta erakutsi du alde aurretik sententzia erabakita duen epaiketa politiko bat egiten ari direla: Kataluniako herria zigortu nahi dute autodeterminazio eskubidea gauzatzegatik.

Azken egunotan Marchena epailea ikusi dugu arau prozesalak asmatzen akusatuen deklarazioak mugatzeko eta U1eko poliziaren indarkeria erakusten duten irudiak galarazteko. Horrekin batera, ikusi dugu ikaragarritzko akatsak egin eta akusazioan probak falta badira ere, fiskaltzako kide batzuek eskatu dutela epaiketan parte hartzen ari diren lau fiskalak kondekora-

tuak izan daitezela “O23az geroztik demokrazian izandako epaiketa garrantzitsuenean lan bikaina” egiteagatik.

Erantzun masiboa otsailaren 12an, 16an eta 21ean: Els carrers seran sempre nostres!

Mugimenduaren erantzuna berehalakoa eta masiboa izan da. Milaka eta milaka langile, ikasle eta pensionista atera dira kalera: O12an

Sindicat d'Estudiantsek deitutako ikasle greba orokorrak Catalunyako ikasgelak hustu zituen epaiketa hasitekoa zen egun berean; 16an milioi erdi pertsonak bete zuten Bartzelonako Gran Via eta 21ean greba orokor arrakastatsu batek kaleak bete zituen.

Eskubide demokratikoen errepresioak hornitzen du 78ko erregimena, Estatu aparatua depuratu ez zuen Trantsizio baten oinordeko da eta “Espainia batu, handi eta askea” defendatzen duten frankistez bete dago. Baina errepresio hau Kataluniako eta Estatu espainiarreko kapitalistek eragindako murrizketak, etxe kale-ratzeak, sententzia matxistak eta lan eskubideen urrake-

ten amesgaiztoa behin betiko bukatzeko borrokatzen dugunok defendatzen dugun aldaketa soziala geldiarazteko borondatearen fruitu ere bada. Hori dela eta, errepresio frankista garaitzeko modu bakarra 78ko erregimen monarkiko eta kapitalista garaitu eta langile eta gazteen Kataluniako errepublikaren alde borrokatzea da.

PDCATEk eta ERCko agintari sozialdemokratek Pedro Sanchezen aurrekontuak lurperatu dituzte milaka eta milaka pertsonen presioa sentitu dutelako U1arekiko PPren argumentuak onartu dituen PSOE baztertzeko; halere, mugimendua itzaltzen saiatzen ari dira agintari horiek. Torraren Govern-ak, PDCATEk eta Esquerrako agintariek preso politikoak askatzeko eta “errepublika egiteko” batasuna aldarrikatzen dute, modu abstraktuan, baina praktikan ahalegin guztiak egiten ari dira mugimendua

geldiarazteko eta kalean masen mugimendua haztea eragozteko.

Nortzuk dira gure aliatuak?

Korrelazio indarrak Kataluniako errepublikaren aldekoak dira, mobilizazioetan erakutsi dugun bezala, baina errepublikaren aldeko indarra hazi daiteke langileen eta gazteen errepublika aldarrikatuta, kapitalismoaren izurri eta injustizia sozialak bukatuko dituen programa sozialista batekin. Horrexegatik garrantzitsua da sektore kontziente eta borrokalarrien hartzea askapen nazionalaren aldeko mugimenduren buruzagitza, eta ez Quim Torrarren Govern-ak, oraindik ez baitu hezkuntzako eta osasuneko murrizketa atzera botatzea planteatu ere egin.

Erreakzioa geldiarazi eta gure eskubideak erdiesteko bide bakarra gehiengoaren alde egin eta miseria eta etsipena eragiten dituzten bankari eta enpresari handien domeinua garaituko duen programa defendatzea da. Gure aliatuak eta borroka kideak Voxen aurka mobilizatu diren gazte eta langile andaluziarrak dira, M-16an “Madrid es-

tá con el pueblo catalán” aldarrikatu duten madrildarrak eta Estatuko eta Europako gainerako zapalduak. Historiak erakutsi du preso politikoak amore eman gabe edo kontrapartida politikorik gabe askatzeko modu bakarra erregimen zapaltzailearen ordena sozialaren aurkako mobilizazio masiboa dela.

Martxoaren 16an Madrilen 120 mila inguru gazte eta langile bildu ziren. Oso esanguratsua izan zen katalanez eta euskaldunez gain, zenbat jendeke parte hartu zuen estatu espainiar mailatik. Manifestazio hau, Kolonen PP, Cs eta Voxek otsailean deitu zuten manifestazio kaxkarrarekin alderatu besterik ez dago, ulertzeko indarrak zein aldekoak ditugun jada, eta noraino helgintzekoen irudikatzeko borroka iraultzailean elkartuz gero. Zentzu horretan, akats larria egin zuten beste behin Unidos Podemos, CCOO eta UGTko buruzagiek mobilizazio honen aurrean ez ikusiarena egiten. Manifestazio honek erakutsi zuen berriro, langile eta gazteen Kataluniako errepublikaren aldeko borroka Estatu osoan faxismoaren, 78ko erregimenaren eta kapitalismoaren aurkako borroka bultzatzeko palanka bat gehiago dela.



Martxoaren 8ak erakusten du bidea!

Beste behin historia egin dugu!

LAURA LUENGO
Emakume Aske eta Borrokalaria

Berriro ere egin dugu! Milioika emakume langilek beste pauso tinko bat eman dugu aurrera. Goizean milaka eta milaka emakume langile eta gazte, gure kide gizonekin batera, Euskal Herriko hirietako kaleak hartu genituen, baita estatu osoan ere, Ikasle Sindikatuak eta Emakume Aske eta Borrokalariek deitutako ikasle manifestazio masiboetan. 2,5 milioi ikaslek egin zuten greba eta manifestazioetan 400.000 ikasle elkartu ginen.

Azken hilabeteotan emakume langileak egon gara EAJ-PSEren gobernuaren kontrako mobilizazio sozialaren buruan, etxeetako zain-

tza zerbitzuetako langileek edo zaharren egoitzetako langileek erakusten duten bezala. Pentsionisten aldarrikapena jarraituz, "governatzen duenak gobernatzen duela ere, eskubideak defendatu egiten dira", greba orokorra arrakastatsua izan zen, eta manifestazioak masiboak Bilbon, Gasteizen, Donostian, Iruñean eta beste hainbat lekutan. Horixe da gure aldarrikapenak gauzatzeko bide bakarra! Ez digute baliio feminismoa aurpegia garbitzeko erabiltzen duten erakundeek, are gutxiago Pedro Sanchezen gobernuak bere burua historiako feministenatza aurkezten duenean, baina praktikan murrizketa sozialak, lan erreforma, soldata arrakala mantendu eta Elizaren alde jarri de-

nean, bere mezu matxista eta homofoboekin, hezkuntza sisteman dituen pribilegioak bermatuz.

Euskal Herrian, PSErekin agintzen duen EAJ iaz Martxoak 8a boikoteatzen saiatu zen, gehiegizko zerbitzu minimoak inposatu zituen, orain ere beste aldera begiratzen du Bizkaiko Ezkerraldean Naval ixtearen ondorioz langile familietako 3.000 lanpostu suntsitzen dituen bitartean, eta aurren M8arekin bat egiten duela esan du. A ze hipokresia! Emakume Aske eta Borrokalariek, Ikasle Sindikatuak eta Ezker Iraultzaileak argi esaten dugu nor diren gure zapalkuntzaren arduradunak: emakume langileen zapalkuntzatik, gure kontura, irabaziak eskuratzen dituzten gizon eta

emakume kapitalistak. Horixe izan da aurtengo M8aren mezu garbiene-tako bat: emakume zapalduen mobilizazio bat izan da, zapaltzen gaituzten gizon eta emakumeen aurka.

Eta borroka honetan emakume guztiak ez dira gure aliatuak. Itsaso Atutxak eta Cristina Uriartek, Iñigo Urkulluk bezala, pribatizazioak, enpresak ixtea, prekaritatea eta La Manadako bortxatzaileak kalean utzi eta muntaia polizial baten bidez Altsasukoak kartzelan sartzen dituen justizia matxista eta atzerakoa defendatzen dituzte. Sistema kapitalistaren, justizia patriarkalaren eta klasekoaren defendatzaile dira eta gure zapalkuntzaren arduradun, beren kide gizonetakoekin batera. Horrexegatik egiten genuen garrasi martxoaren 8an: Kanpora EAJ Martxoaren 8tik! Kanpora eskuina Martxoaren 8tik! Gure askapenaren aldeko borroka honetan gure kide mutilak nahi ditugu ondoan, aske nahi gaituzten horiek, gurekin batera borrokatu eta greba egin zuten horiek.

Arratsaldean milaka eta milaka pertsona ateratu ginen Euskal Herrian eta beste 5 milioi estatu osoko hiriak betetzera: Bilbo, Bartzelona, Madril, Valentzia edo Malagan. Argi geratu zen langile klaseko emakume eta gazteok lortu genuela borroka egun hura masiboa izatea. Zer du ikustekorik Letizia erreginaren bizitzak gurearekin? Eta Ines Arrimadasenak? Ezertxo ere ez.

Era berean, mobilizazio pauso erabakigarria izan da emakumeen eta, oro har, langile klasearen oinarritzko eskubideak erasotzeko planekin historian atzera egin nahi duten horien aurka. Mezu garbia bota diegu Colon hirukoari, PPK, Ciudadanosek eta Voxek esaten duten bloke atzerakoi espainolista eta matxistari, eta horixe da geldiarazteko modu bakarra. Apirilaren 28an bozkatzera joateaz gain, kalean borrokatu behar dugu, M8ko egun historikoa horretan



egin genuen bezala. Aurtengo M8ko garrasia ozena izan da: Ez zarete pasako!

Gazte eta langileok argi dauka gure orainaren eta geroaren aldeko borrokan aurrera jarraitu behar dugula. Horregatik sistemaren espektakulutik urrun dagoen

feminismo bat eraiki behar dugu, asimilatu eta etxekotuko ez dutena, klaseko feminismo iraultzaile eta antikapitalista.

**Eraiki ezazu gurekin!
Bat egin ezazu Emakume Aske eta Borrokalariekin!**



Altsasuko gazteak askatu!

Errepresioa garaitzeko modu bakarra kaleko borroka da

IKER OTERMIN

Martxoaren 7an Auzitegi Nazionalak argitaratu zuen Altsasuko gazteentzat 13 urte bitarteko kondenak berresten dituela. Frankismotik zuzenean datorren aparatu judizial honek argi utzi du epai honekin bide errepresibo gogorrean aurrea egiteko asmoa duela. Argi utzi du, beste behin, justiziaren inpartzialtasun eta proportzionaltasunaren inguruko hitzontzikeria guztia gezur handi bat besterik ez dela, hainbat prozesu judizialean ikusi dugun bezala.

Frankismo kiratsa darion epaiketa politiko bat

Otsailean egin ziren Auzitegi Nazionalen ekaineko epaiaren errekurtsoko saioak. Fiskaltzak tabernako liskar bateko gertaerak terrorismo

delitu gisa kondenatzeko eskatzen jarraitzen zuen. Oraingoan epaitegiek onartu zituzten aurretik ukatu ziren zenbait frogak eta testiguen. Nahiz eta, berriro ere, muntaia biskakoa zela argi utzi zuten testiguen azalpenek eta frogak, azkenean interesatuak edo garrantzi gabeak zirela ebatzi zen. Erabakia jada hartuta zegoen.

Muntaia honen lehen egunetik *modus operandi* berbera gailendu da: aurrea tiro egin eta gero galdetu. Horrela jardun dute, bloke bakar bat bezala, Guardia Zibileko eta judikaturako goi instantziak, eskuineko alderdiek, COVITEk eta

komunikabide kapitalistek. Gazteetako hiru aste gutxiaren buruan atxilotu eta Madrilgo karteletara eramane zituzten, FIES erregimenean. Kasua hasieratik Auzitegi Nazionalera eramane zen, defentsari oinarritzko berme juridikoak ukatu zitzaizkion eta *El País* bezalako komunikabideek lehen minututik kondenatu zituzten.

Estatu aparatu eta eskuin frankista

Kasualitatea ala ez, epaia argitaratu baino egun bat lehenago, Eduar-

do Inda, Pablo Casado eta Ana Beltrán Altsasuko Koxka tabernan agertu ziren elkarrizketa baten aitzakian. Beste behin, probokazioak asmo argiak zituen. Hasteko, argi utzi nahi zuten muntaia honen bultzatzaileek inpunitate osoa dutela eta ukiezinak direla. Bigarrenik, gazteak askatzeko mobilizatu garen guztioi mezu argia eman nahi digute: “nahi duguna egin dezakegu, eta berdin du zer esaten duzun, justizia frankista gure alde dago.”

Ez da lehen aldia eskuineko hedabideek epaia ofizialki argitaratua izan baino lehenago ezagutzen dutela. Oraingoan ere, gazteen senitatekoek salatu zuten epaia prentsaren bitartez ezagutu zutela. Hain zuzen ere, PPek, Cs-k eta Voxek behin eta berriz erabili dute muntaia hau beren borroka bandera gisa, eta hainbatetan joan dira Altsasura probokazioaren bila. Estatu aparatuarekin eta errepresio frankistarekin puzten dute beren paparra. Dena ETA da tesiarekin jarraitu nahi dute aurrera, kosta ahala kosta. Oso baliagarria izan zaie tesi hori erregimenaren aurkako protesta oro kriminalizatzeko eta mota guztietako lege errepresiboak aurrera eramateko; orain lege horiek Catalunya eta estatu mailara zabaltu nahi dituzte.

Elkartasunak ez du mugarik. Borroka da bide bakarra

Ezker Iraultzaileari eginiko elkarrizketa batean Bel Pozuetak ongi zioen bezala, “Altsasuko kasuak elkartasun marea bat altxatzeko eta sistemari esateko: aski da, honaino.” Milaka gazte eta langilek ulertu dute muntaia honek helburu politiko argia duela. Errepresioaren beldurraren bitartez isilarazi egin nahi gaituzte, protestarik ez egiteko. Baina Iruñeko eta Euskal Herri osoko kaleak hartu dituzten mobilizazio historikoak erantzun ezin hobeak izan dira oldarraldi errepresibo honen aurrean.



Ezker Iraultzailetik, elkartasun kanpaina internacional bat jarri dugu martxan eta 700 sinadura inguru lortu ditugu, batez ere, ezkerreko ekintzaileenak eta sindikalistenak. Era berean, elkartasun ekintzak antolatu ditugu mundu osoan zehar, Estatu Batuetan, Taiwanen, Irlandan, Errusian, Suedian, Belgikan eta beste hainbat herrialdeetan. Kanpaina honen barruan, Dublingo udalak moztu bat onartu du eskakizun horrekin, eta Ikasle Sindikatua bezalako erakundeek elkartasuna estatu mailako gazteengana zabaltu dute, eta orain gutxi egi-

niko Ikasle Sindikatuaren kongresuan Altsasuko gazteen senitatekoek parte hartu zuten.

78ko erregimena alde guztietatik ari da zartatzen. Deriba autoritario honek erregimenaren ahultasuna besterik ez du erakusten, desesperaturik daude egoera kontrolpean mantentzeko. Baina milaka gazte, pentsionista eta langilek kaleak hartu dituzte aski dela esateko: bizi dugun egoera aldatu nahi dugu eta bidea sistema honen aurka borrokatzea da, beren ordezkari politikoek eta boteretsuen zerbitzura dagoen auzitegi frankisten aurka.



SOLIDARITY

Altsasuko gazteekin

Hartu parte kanpaina
Altsasuko gazteak askatu!
Aski da! Muntaia polizialik ez!

Comité por una Internacional
de los Trabajadores



**EZKER
IRAUTZAILEA**

TXARRENARI ONENA ATERA DIOZU,
#ALTSASUKOAKASKE

Ikasle grebak eta mobilizazioak Europar klima alaketaren aurka

Kapitalismoa PLANETA HILTZEN ari da!

Ingurugiroa enpresarien irabaziak baino askoz garrantzitsuagoa da!

IKASLE SINDIKATUA

Planetak jasaten duen suntsiketa-
ren aurkako borroka hil ala biziko
aizia bilakatu da. Ingurugiroaren
hondamendi katastrofiko baten
arisku larriaren aurrean, mundu
osoko gobernu kapitalistek duten
hipokresia ez du mugarik: klima-
ri buruzko goi-bilerak antolatzen
dituzte eta ingurugiro protokoloak
onartu, gero multinazional handiek
sistematikoki horiek hausteko, poli-
tikari berberen baimenarekin.

Horixe bera da EAJk eta PSEk
governatzen dituen Eusko Jaurla-
ritzak eta Foru Aldundiek eta Na-
farroako Gobernuak egiten dutena.
Diru publikotik 10 mila milioi euro
balioko duten AHTaren obrak Eus-
kal Herria suntsitzen ari dira eta
ez dute balioko garraioko CO₂ isur-
ketak gutxitzeko. Gipuzkoan, Zu-
bietako erraustegia jarri nahi du-
te martxan. Hori 30 km-ra bizi di-

ren pertsonen osasunaren aurkako
atentatua izango da eta, gainera,
768 milioi euro kostako zaigu, erai-
kuntza eta hondakinen kudeaketako
enpresarien poltsikora joango dire-
nak. Zerrenda luzea da. Hainbeste
obra eta makroproiektutan ikusten
dugun bezala, euskal eskuinari ez
zaio axola Euskal Herriko inguru-
mena, ezta bertan bizi garen gehien-
goaren beharrianak ere. Enpresa-
ri eta bankariak aberastea bakarrik
inporta zaio.

**Martxoaren 15ean borroka
Euskal Herrira zabaldu zen**

Iazko azaroaz geroztik milaka eta
milaka ikaslek klima alaketaren
eta honek ingurugiroan eragiten
duen hondamendiaren aurkako mo-
bilizazio erraldoiak egin dituzte Bel-
gikan, Alemanian, Britainia Han-
dian, Australian eta beste hainbat
lekutan.

Euskal Herria Sozialista

Martxoaren 15ean Ikasle Sindi-
katuak grebara eta manifestazioeta-
ra deitu zuen Hego Euskal Herriko
lau hiriburuetan. Sindicato de Es-
tudiantesek 100 mila gazte atera
zituen kalera estatu mailan. Ika-
sle mugimendu honi hasiera bikai-
na eman zitzaion herrietan, sistema
kapitalistaren aurkako borrokaren
planteamendu argia eginez. Aldake-
ta klimatikoak erantzule argiak di-
tu, kapitalista eta bankari handiak,
eta horien zerbitzura dauden gober-
nuak. Ekoizpen baliabideak desjabe-
tu ezean, ezinezkoa da sistema hau
eraldatzea eta aldaketa klimatikoa
gelditzea.

Hauxe eskatzen dugu:

- Zubietako erraustegia geldi-
tu! Birziklatze enpresa pu-
blikoak, langileen kontrol de-
mokratikopean. Negoziorik ez
ekologismoarekin!
- Energia eta erregaia sortzen
dituzten multinazional guztiak
nazionalizatzea eta inbertsio
plan publiko bat egitea energia
industria erabat ekologikoa eta
jasangarria izan dadin. Ener-
gia pobrezia ez!
- AHTrik ez! Kalitatezko eta
doako garraio publiko eta eko-
logikoaren alde. Inbertsio ma-
siboa hiriak %100 jasangarriak
izan daitezen.
- Automobil, aeronautika eta on-
tzigintza industriaren naziona-
lizazioa eta horien eraldake-
ta ekoizpena bideragarria eta
ez-kutsagarria izan dadin.
- Lurraren, abeltzaintzaren eta
elkagai prozesamenduen in-
dustriaren nazionalizazioa. Ozeanoen ustiatze kapitalis-
tari ez! Elikadura jasangarri,
ekologiko eta osasuntsuaren al-
de, gizarte osoarentzat!
- Langileen eta gazteen osota-
sunaren kontrol demokrati-
kopean planifikaturiko ekoiz-
pen jasangarria! Munduaren
eraldaketa sozialista eta ekolo-
gikoaren alde!

Euskal Herria Sozialista

Jarduera oharrak

Jardunaldi Marxistak Gasteizko EHUn

Martxoaren 13an Jardunaldi Marxistak hasi dira Gasteizko EHUn, Ezker Iraultzaileak eta Federico Engels Fundazioak antolaturik. Bost asteazken hartuko dituzte guztira eta bertan egungo egoera politiko eta sozialean garrantzia berezia duten gaiak landuko ditugu: muturreko eskuinaren aurrerakada eta nola borrokatu; gazteen eta langileen Catalunyaeko errepubli-
karen aldeko borroka; feminismo iraultzaile eta antikapitalis-
ta; Altsasuko gazteen aurkako muntaia polizial eta judiziala; eta azkenik kapitalismoaren krisia eta zein den sistema hone-
kin amaitzeko alternatiba.

Jardunaldiok, asteazkenero izango dira, martxoaren 13tik
apirilaren 10era bitartean. Bost hitzaldi-solasaldi izango dira
eta ikus-entzunezko proiektzio bat egongo da lehenengo. 4 or-
duko iraupena izango dute saioek, 15:30etan hasi eta 19:30ak
arte. EHUKo ikasleek **aukera askeko kreditu bat** eskuratze-
ko aukera izango dute. Bestalde, sarrera erabat askea izango
da interesa duten guztientzat.



Ezker Iraultzailea Tolosako ihauterietako txoznetan

Txoznaguneak ateak zabaldu zi-
tuen aurten ere Tolosako ihau-
terietan. Aldarrikapenez, mobi-
lizazioz, kontzertuz eta festa gi-
ro sanoaz bete zen Euskal Herria
plazan gure karpa. Sistema kapi-
talistaren zapalkuntza mota ezber-
dinen aurka etenik gabe borroka-
tzen dugun herriko hainbat era-
gile elkarlanean aritu ginen, gure
ihauteriek ezinbestean behar du-
ten gune borrokalaria, gazte eta
langileontzako egitarau eder ba-
tekin antolatzen.

Aldizkari hau ateratzen dugun
kideak hamarkada bat daramagu
Tolosako txozna batzordean parte
hartzen. Urteetan zehar Tolosako
txoznagunetik borroka latza eman
behar izan dugu merezi dugun es-

pazioa aldarrikatzeko, eskuinaren,
instituzioen, poliziaren eta mota
guztietako jazarpenen aurka. Eta
hala ere, geure ahaleginik hobere-
na egin dugu, urtez urte gune hori
geroz eta hobeto janzteko, girorik
hoberena sortzeko. Txosnak kapi-

talismoak eta enpresarien irabazi
nahiek inposatu nahi duten festa
eredu basatiari aurre egiteko gu-
neak dira, eta aurrera bultzatu be-
har ditugu, taldeon autogestiorako
gune garrantzitsuak izanik. Jaietan
ere, borroka da bide bakarra.



Prekarietaterik ez!

Lanpostuen suntsipen gehiagorik ez Euskal Herrian!

Utzi EAJrekin akordio ustelak egiteari langileak kolpatzeko!



Mobiliza gaitezen!

ANDER AZKARATE
ELAko delegatua eta Ezker
Iraultzaileko kidea

Testuinguru gogor batean bizi gara Euskal Herrian: prekarietatearen eta esplotazioaren areagotzea, Naval gisako enpresa historikoen itxiera... Halaber, hainbat sektoretan piztutako gatazkek eta mobilizazioek erakusten dute krisia gure sorbalden gainean jarri nahi dutenen kontra borrokatzeko langile klaseak daukan borondate irmoa. Baina, zein izan da erakunde sindikalen jarduera kapitalaren ofentsiba honetan?

Burgesiak, bere erasoek sortutako ezinegon saihesteko, sindikatuen lankidetzat bilatu ohi izan du elkarriketa sozialaren bidez. Hori izan da EAJren politika EAEn. PSEk ere, gobernutik kanpo edo barruan, politika horretan modu aktiboan parte hartu du. CCOO eta UGT, estatu mailan bezalaxe, funtsezko lagunak izan dira amarru horretan, Confebaskekin batera.

Gaur egun, Urkulluren Gobernuak gero eta gatazka sindikal gehiago du aurrean, besteak beste, itunpeko eskolak, jantokiak, La Navaleko itxiera, zahar-etxeak, garbiketak... Egungo elkarriketa sozialerako mahaiek helburu bakarria dute: borrokak indargabetzea kontzertazio sozial antzuan hondoa jo dezaten. Horretan ere, EAJk PSEren laguntza ordainezina dauka, bera baita gobernuak eta elkarriketa sozialaren akuilu den Lan Saila zuzentzen duena

Elkarriketa sozialerako mahai berrian sartu dira Industria eta Hezkuntza Sailak ere. Mahai horretan, besteak beste, politika industrial adostu nahi dute “enpresen lehiakortasuna hobetze aldera”. Beste behin ere, EAJren enegarren saiakera dugu sindikatuak sektore industrialean irekiko diren gatazka berrien kudeaketan nahasteko, eta, bide batez, Navalen itxiera dela-eta ezkerreko alderdien kritikak indargabetzeko, udal hauteskundeetatik bi hilabetera gauden honetan.

Aurreko kontzertazio mahaiek mobilizazioa desaktibatu eta ez digute inongo onurarik ekarri langileoi. Eta mahai berriak lehengo lepotik izanen du burua. Mahaia arautzen duen dekretuak aurreikusten du akordioak egin ahal izatea sindikatu bakar baten babesarekin (CCOOk eta UGTk EAEko ordezkarien %30 baino ez dute). Ezin ageriago gelditu da Urkulluren Gobernuaren egiazko asmoa: argazkitxoren bat atera sindikaturen batekin eta erakutsi langileei “bere aurpegi onberena”. Gezur hutsa!

ELAk eta LABek esan dute ez direla negoziazio horietara joango. Oso positiboa da, zalantzarik gabe. Baina zerbait gehiago behar da langileen kontrako erasoak gelditu eta EAJ Gobernutik botatzeko. Beharrezkoa da kontzertazio-sindikalgintzaren aurka egitea. **Ezkerreko Sindikaliston eta Ezker Iraultzailea**-ren ustez, bada garaia sindikalgintza borrokalariak erabateko bultzada eman diezaaien azken urteotako gatazkei. Beharrezkoa

da borroka plan bat gatazka guztiak bateratzeko, elkarrekin jotzeko.

Lanpostuak eta soldata duinak defendatu behar ditugu, enpresetako prekarietateari aurre egiteko, bereziki emakumeek eta gazteek pairatzen dutena.

Krisiak lan gatazken areagotzea ekarri du, haietako askotan ELA egon da buruan. Denek bat egin behar lukete borroka berean. Greba orokorraren tresna berreskuratu behar dugu, hainbeste urtez ardurdun sindikalek abandonatuta egon ondoren Euskal Herrian, azken martxoaren 8an izan ezik. Azken deialdiaren atzean, mugimenduaren presio handia egon da, eta erakutsi du zer nolako indarra daukagun erasoari aurre egiteko. Eta are handiago izan zitekeen sindikatuak langile guztiei grebara deitu eta mobilizazioaren klase izaera erakutsi ezker.

EAJk egunero erakusten du bost axola zaizkiola langileon eskubideak eta Euskal Herriko eta Kataluniako askapena borrokak. Haren helburu bakarra da euskal kapitalisten inte-



resak defendatzea. EAJren Gobernuak bota behar dugu eta langileok borrokaren buru jarri. M8ak erakusten digu bidea. Badaukagu indarra

irabazteko. Baina hori ez dugu lortuko bulegoetan EAJrekin akordio ustelak eginez, antolatuz eta kalean borrokatuz baizik.

Gora sindikalgintza borrokalariaren!
Utikan patronala eta EAJrekin egindako kontzertazioak!
Eman ditzagun urratsak Euskal Herrian greba orokor bateratu baten alde!

Arabako erresidentziak borrokan Eskubideak borrokatuz lortzen dira

OIER NAVARRO
Sektoreko langilea
LABeko afiliatua eta
Ezker Iraultzaileko kidea

Joan den otsailaren 6an erresidentzia pribatuetako langileak Arabako Foru Aldundiaren aurrean mobilizatu ginen, jasaten ditugun lan baldintza txarrak salatuzko. ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuak publikoki salatu dute erresidentziak asko izan arren, ez dela hitzarmenik existitzen

Arabako langileen lan baldintzak erregulatzeko.

Azpitarratu beharra dago, lehen aldia dela hain zigorturik dagoen kolektibo hau Araban mobilizatzen dela. Sindikatuak eskatzen diegu mobilizazio bateratuen egutegi bat proposa dezatela eta batzarrek dei ditzatela erresidentzietan Arabako kolektibo guztia bateratuko duen aldarrikapen plataforma osatu dezaten.

Uste dugu Giza Ongizate Foru Institutua (IFBS) eta Diputazioare-

kin bilerak egitera bakarrik bideratzera indarrak akats larria dela. Organismo hauetatik borroka promesekin lohitu nahi da, berehala berrikusiko dituztela ratioak eta patronalarekin lan mahaia sortuko direla, etab. esaten dutenean. Era berean, argi uzten dute egungo eredu sozio-sanitarioa defendatzen dutela, hirugarren adinari arreta duin bat ukatzen duen berbera.

Gure eskubideak defendatzeko dugun bide bakarra kalera irtetea da, mobilizazio programa batekin.

Ez dira pasako!

Espainiar zein euskal eskuina garaitu behar da hautestontzietan eta kalean

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

du. Ezinegon eta asaldatzeko politikoa baretzeko saiakerak porrot egin dute eta atzean utziak ziruditen mamuak berriro azaleratu dira, PP, Cs eta Voxen hizkeran, moduan eta programan. Sozialdemokraziaren propaganda irrigarriak, “zuzenbide Estatu demokratikoan” bizi gara eta esanez, ezin du estali diktaduratik datorren Estatu aparatuen izaera erreakzionarioa eta eskuinaren ADN frankista.

Andaluziako hauteskundeetan argi ikusi genuen zer nolako eragin desmobilizatzailea duen PSOE-ren politikek, murrizketak eta austeritatea aplikatzen jarraitzeak, 155a babestea eta logika kapitalista onartzearen ondorioak. Bai-

na kolpea ez zen Susana Díazena bakarrik izan. Unidos Podemosek ere galera handia jasan zuen. Nola edo hala gobernura iristeko antsiak, sistemaren aurkako konfrontazioari eta mobilizazioa bultzatzeari uko eginez, itxuragabetu egin ditu Pedro Sánchezen PSOEn eta egungo Podemosen arteko ezberdintasunak.

Bloke atzerakoia garaitu behar da kalean eta hauteskundeetan

Andaluziako hauteskundeetan Voxen emaitzen ondoren, EAJk bere burua politikoki zurrizteko eta “zentro aurrerakoiko” alderdi gisa saltzeko aprobetxatu du, espainiar eskuina baino aurrerakoiagoa den aukera moduan. Baina muturreko eskuinaren gorakadaren aurrean agertzen dituen usteko kezak era-

bat hutsalak dira. Inoiz ez du arazorik izan PPrekin itunak egiteko. Baina, gainera, bere txiringito bihurtu dituen euskal instituzioetatik funtsean eskuineko politika ekonomiko eta sozial berberak babesten eta aplikatzen ditu: murrizketa sozialak eta errepresioa langile klasearen aurka, leialki ordezkatzeko duen burgesiaren poltsikoak eduki betetzeko.

Eskuin espainolistaren bloke atzerakoiak erasoan jo mugan jarri ditu nazio zapalduen eskubide demokratikoak, mugimendu feministak, eta xenofobiaren eta arrazakeriaren pozoia zabaltzeko nahi du. Diskurtso frankista eta demagogia hinguarriena erabili nahi du langile klasea zatitzeko eta zapaltzeko. Bitartean, eskuineko sektore batzuk, egungo “marko autonomikoa” defendatu nahi dute eta hori ezkutu gisa erabili, Catalunyan, Galizan eta



Euskal Herrian erabakitze eskubidearen aldeko borroka duen eduki iraultzailea desegiteko.

Zentzu honetan EAJk autonomiaren defentsaren buruan kokatu nahi du bere burua, hau da, espainiar Konstituzioaren eta 78ko erregimenaren defentsan. 2017ko urriaren 1ean Catalunyan herria erabakitze eskubidearen aldeko borroka eredu garri bat ematen ari zen bitartean, Urkullu lehendakariak, berak epaitegien aurrean deklaratu zuen bezala, ahal zuen guztia egin zuen Rajoyrekin aliaturik herri katalanaren altxamendu miresgarria- rekin amaitzeko.

Ezker Iraultzailetik gure indar guztiekin lagunduko dugu PP, Cs eta Voxen bloke erreakzionarioa garaitzeko Euskal Herrian. Baina EAJk eta PSEk ezartzen dituzten austeritate eta murrizketa politika kapitalisten aurka ere egingo dugu, gainera aurrekoei bidea irekitzen baitie. Horregatik EHBilduk eta Elkarrekin Podemosek oposizio gogorra planteatu behar dute, kaleko mobilizazioa aurrera eramanez, borrokan dauden sektoreak batuz eta programa apaltzeari eta eskuinarekin itunak egiteari uko eginez.

Baina bozkatzeko ez da nahikoa. Eskuina hautestontzietan garaitzeko eta langileen, gazteriaren eta krisi kapitalistaren ondorio gogorrek jasanditugun guztion interesak defendatzeko, ezinbestekoa da kaleetan mobilizazio masiboarekin jarraitzea eta borrokarako ezkerreko erakundeak, langile mugimenduan eta klaseko sindikatuetan sustrai handiak ezarri, baita ikastetxe eta mugimendu sozialetan ere. Askapen nazionalen borroka paper erabakigarria izango du klase arteko borrokan. Horregatik beharrezkoa da ezkerreko, nazio zapalduen zein estatu mailan, autodeterminazio eskubidea defendatzea modu kontsekuente batean eta hori sozialismoaren aldeko borroka iraultzailearekin elkartzea, gazteriaren eta langile klasearen indarrean oinarrituz eta burgesia espainiar, zein katalan eta euskaldunaren aurka eginez.

Hori da Ezker Iraultzailetik defendatzen dugun alternatiba: kapitalismoarekin hausteko programa, bankuen eta monopolio handien nazionalizazioaren alde, autodeterminazio eskubidearen alde eta errepublika sozialistaren alde.

Ez dago denbora galtzeko!



Espainiar zein euskal eskuina garaitu behar da hautestontzietan eta kalean

Ez dira pasako!

Apirilaren 28ko eta maiatzaren 26ko hauteskundeek 78ko erregimenak duen erabateko ezegonkortasunaren eta gizartean dagoen polarizazio politiko handia islatuko dute. Garai berri honen adierazpen benetan esanguratsuak ikusten ari gara: Catalunyan masa mugimenduak autodeterminazioaren eta errepublikaren alde ireki duen egoera leherkorra eta aurrera egiten duen mobilizazio soziala, burukrazia sindikalak eta sozialdemokraziak hori desaktibatzeke egi-

ten dituzten ahaleginak desafiatuz.

Fenomeno horiek, ordea, ez dira kasualitatez sortzen. Kapitalismo espainiarra jasaten ari den krisi larria eta geroz eta sakonagoa den hondamendi soziala ditu iturburu, baita Euskal Herrian ere. Datuak izugarriak dira: aurtien sinaturiko kontratuen %90 behin-behinekoak dira eta 9 milioi 800 euro baino gutxiago kobratzen du. Langabeziak 3,4 milioi pertsoneri eragiten die eta biztanleriaren %26,6 —12,4 milioi pertsona— pobrezia egoeran bizi da.

Hego Euskal Herrian bizi den egoera ez da hain ezberdina, gehiengo sindikalak salatu duen gisan.

Gorantz doan polarizazioa

2018ko ekainean Pedro Sanchezek zentsura mozioan eskuraturiko garaipena, mobilizazio sozial ikaragarri baten bultzadaren ondorio izan zen: Martxoaren 8ko greba orokor feminista, Pentsionisten Marea, Catalunyako errepublikaren aldeko borroka, errepresioaren aurkakoak, preso politikoak, Altsasuko gazteak, etab. EAJk ere, Rajoy babestu eta bere aurrekontuen alde bozkatu ondoren, ezin izan zuen kaleko presioa gehiago jasan, bereziki indartsua Hego Euskal Herrian.

Hauteskunde deialdi aurreratuak jada handia den polarizazio politikoak gora egitea ekarriko

14. ORRIAN JARRAITZEN DU

Antolatu zaitez

EZKER IRAULTZAILEAN

Euskal Herria Sozialista baten alde borrokatzeko

- 1.100 euroko gutxieneko pentsioa eta lanbide arteko gutxieneko soldata! Lan eta pentsio kontrarreformak indargabetzea.
- Legez etxe kaleratzeak debekatzea. Eskaria asetzeko behar beste etxebizitza publikoz osatutako parkea, alokairu sozialean.
- Hezkuntza eta osasungintza duina, kalitatezkoa eta doakoa. LOMCE eta Heziberri indargabetzea.
- Indarkeria matxistaren, justizia patriarkalaren eta LGTBI komunitatearen kontrako diskriminazioaren aurka.
- Faxismoa eta arrazakeriaren aurka borrokatu behar da mobilizazioarekin eta antolakuntzarekin. Atzeritarren Legea indargabetu eta Atzeritarren Internamen-

du Zentroak itxi behar dira, etorkinei eta beren familiei eskubide politikoak, sozialak eta ekonomikoak bermatuz.

- Errepresio judizial eta polizialik ez. Adierazpen eskubidearen alde. Mozal Legeari ez!
- Bankaren eta ekonomiaren sektore estrategikoen nazionalizazioa, pertsonak erreskatatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Autodeterminazio eskubidearen alde. Euskal Herriko eta Kataluniako errepublika sozialisten alde eta errepublika sozialista federal baten alde, egun Estatu espainiarra osatzen duten herri eta nazioen batasun libre eta borondatezkoan oinarritua, erabaki hori hartuta.